

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	ARAZI Ideiak Borobiltzen
2. Sektorea:	Kudeaketa, Heziketa, Komunikazio Zerbitzuak. Kultura, ingurumena eta turismo arloan batez ere.
3. Langile kopurua:	40
4. Webgunea:	www.arazi.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Kudeaketa, heziketa eta komunikazio zerbitzuak eskaintzen ditu ARAZI-k.</p> <p>KUDEAKETA-ri dagokionez, Museo eta interpretazio zentroyen kudeaketa eta dinamizazioa da ARAZI-ren lan lerro nagusia. Kultura, ingurumena eta turismoarekin loturiko ekipamenduak kudeatu eta dinamizatzen ditu integralki edo zenbaitetan, bisitariei arreta eta bitartekaritza eskaintzeaz arduratzen da. Ekitaldien antolaketa ere lan lerro honetan txertatzen da. Kultur eta kirol arloko ekitaldiak antolatzen ditu ARAZI-k. Negozio lerro honetan, erakunde publikoak dira bezero nagusiak, baita Fudazioak eta irabazi asmorik gabeko elkarteak ere.</p> <p>HEZIKETA-ri dagokionean, Eskola Agenda 2030, Haurren Hiria, unitate didaktikoen diseinu eta garapena, ... hezkuntza komunitateari zuzendutako zerbitzuak dira. Erakunde publikoak eta ikastetxeak dira bezero nagusiak.</p> <p>KOMUNIKAZIO zerbitzuak bere zentzurik zabalenean eskaintzen ditu ARAZI-k. Aholkularitza eta komunikazio planak garatzeaz gain, ekintzen garapenaz ere arduratzen da, euskarri ezberdinetarako edukia eta diseinua, bai digitalean eta baita euskarri fisikoetan ere (web, ikusentzunezkoak, aldizkariak, etab). Marketin eta community manager zerbitzuak, ondarearen interpretaziorako diseinu eta seinaleztapen proiektuak ere burutzen ditu.</p>

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	Amaia Zabala
Helbide elektronikoa:	arazi@arazi.eus
Telefonoa:	943833641

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Euskara, Arazik gizartearekiko duen konpromisoan barneratuta dago
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Araziren estrategiaren barruan, euskara, gizarteariko konpromisoan barneratuta dago eta konpromiso horren emaitza da Urrezko BIKAIN ziurtagiria, lana euskaraz egiten dugula eta zerbitzua ere euskaraz eskaintzen dugula bermatzen duen ziurtagiria.</p> <p>Bestalde, gizartearekiko konpromiso horren baitan, lana eta zerbitzua euskaraz burutzeaz gain, gizartean ere euskararen erabilera sustatzeko, ARAZI-k ekimen propio bat jarri zuen abian 2011 urtean eta oraindik ere indarrean jarraitzen du. “Triatloia Maite Dut” ekimenaren bitartez, ARAZI-k gazte eta nerabeen artean aisialdian euskararen erabilera sustatu nahi du beste hainbat balio ere landuaz. Horretarako, kirolarekin loturiko ekintza ezberdinak eskaintzen ditu urtean zehar, topaketak eta egonaldiak besteak beste. Horrez gain, euskara hutsean komunikatzen du bai web atarian (www.triatloiamaitedut.eus) eta baita beste sare sozial eta komunikabideetan ere. Edukia ere euskara hutsean sortzen du eta euskarri digitaletan jartzen du eskuragarri (bideoak etab.).</p> <p>“Triatloia Maite Dut” ekimenaren barruan eskaintzen diren zerbitzu gehienak doan dira. www.triatloiamaitedut.eus web atarian, urtero erronka ezberdinak luzatzen zaizkie gazteei, taldean edo bakarka erronka hauetan parte hartuz, hainbat zozketatan parte hartzeko aukera izaten dute, baita bestelako sari eta opariak jasotzeko ere. Parte hartzea beti doakoa izaten da, “18 Astetan Triatleta”, “#izanezberdin Gazte Pikea” kasu.</p> <p>Horrez gain, aholkularitza eta informazio baliagarria modu irekian argitaratzen da web atari horretan, ez da inolako kuotarik ordaindu behar edo kode berezirik behar bertako edukia ikusi ahal izateko. Euskara hutsean dago informazio guztia, ez dago gaztelerazko edo beste hizkuntza bateko bertsiorik.</p> <p>Egitasmoaren baitan eskaintzen diren egonaldien kasuan berriz, astebeteko udaleku itxien kasuan adibidez, zerbitzua ordaindu egin behar izaten dute, baina merkatuko ohiko prezioak baino merkeago eskaini ahal izaten dira, Eusko Jaurlaritzako “Euskalgintza” lerroko dirulaguntzak jasotzen baitira jarduera hauek aurrera eraman ahal izateko.</p> <p>Gizartearekiko beste konpromiso bat eskualdeko gazteei praktikaldiak burutzeko aukera eskaintzea da, lan esperientzia bat izaten laguntzea da, eta esperientzi hori euskaraz bizitzeko aukera ematen da Arazin.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

Triatloia Maite Dut: Gazteen eta nerabeen artean aisialdian euskararen erabilera sustatzea helburu duen ekimena. Horretarako, kirolarekin loturiko ekintza ezberdinak eskaintzen ditu urtean zehar, topaketak eta egonaldiak besteak beste, guztia euskaraz.

UDALEKUAK 2021

Triatloia Maite Dut egitasmoaren baitan jasotzen diren udalekuak gazteen aisialdiko eskaintza ezberdinak biltzen dituzte: ingurumen sentsibilizazioa, aisialdi eta jolasak, kirola eta nola ez triatloi udalekuak. Ikusiko duzue eskaintza zabala dela, baita antolatzaileak ere. Aztertu bakoitza eta sartu bakoitzaren egitarauan zein jarduera landuko diren jakiteko.

APIRILA 2021



UDALEKUAK ZUMAIAN PAZKO ASTEAN (6-10 URTE)

Apirilak 6-7-8-9

♀ Algorri Zentroa, Zumaia

Antolatzailea:

Arazi

Amaituta

ABUZTUA 2021



UDALEKUAK ZUMAIAN ABUZTUAN (7-12 URTE)

Abuztuak 9-13

♀ Zumaia, Gipuzkoa.

Elkargunea: Algorri Zentroa.

Antolatzailea:

Arazi

Izen emateak ZABALIK

ABUZTUA-IRAILA 2021



XI. KIROL UDALEKUAK TXURRUKAN (7-11 URTE)

Abuztuak 29 - irailak 3.

Kirola, ingurumena eta aisia
uztartzten dituen udalekuak.

♀ Txurruka aterpetxea, Orio.

Gipuzkoa.

Antolatzailea:

Nik Tri Triatloi Elkarte, Arazi eta

Fitgüne

Izen emateak ZABALIK

ABUZTUA-IRAILA 2021



XI. TRIATLOI UDALEKUAK TXURRUKAN (12-17 urte)

Abuztuak 29 - irailak 3.

Lagun artean triatloia
praktikatzeko aukera ematen
duten udalekuak.

♀ Txurruka aterpetxea, Orio.

Gipuzkoa.

Antolatzailea:

Nik Tri Triatloi Elkarte, Arazi eta

Fitgüne

Izen emateak ZABALIK

Horrez gain, euskara hutsean komunikatzen dugu, bai web atarian eta baita beste sare sozial eta komunikabideetan ere.



triatloiamaitedut



triatloiamaitedut 100 parte hartzaitetik gora izatera iritsi gara '18 astetan triatleta' erronkan 🤗🤗🤗🤗
🍌🍌 Pozgarria benetan!!

Euskal Herriko hainbat txokotatik animatu zarete, zehazki 38 herritatik, eta ia erdiak, %44,55 zehazki, emakumezkoak dira gainera. 🚴🏠

Parte hartzaileen gehiengoak 20



Les gusta a kutxakultur y 76 personas más

1 DE JULIO

<https://www.instagram.com/triatloiamaitedut/>



Nik Triatloia Maite Dut

Publicado por Arazi Kudeatzailea · 7 de julio a las 11:15 · 🌐

#18AstetanTriatleta 🚴🏍️🏊‍♀️

Beasaingo Naiarak entrenamenduak nola doazen azalduz bidali digu bideoa. Ze pozgarria Goierriin ere topera entrenatzen zabiltzala jakitea. Aupa Naiara 🤗👍

Eta zuk, non entrenatzen duzu? Kontaiguzu 😊

Erron... Ver más



<https://www.facebook.com/triatloiamaitedut>

Edukia ere euskara hutsean sortzen dugu eta euskarri digitaletan jartzen dugu eskuragarri (bideoak etab.).



Nik Triatloia Maite Dut

Publicado por Arazi Kudeatzailea · 2 de julio a las 14:44 · 🌐

Kaixo gaztek!! 😊

Erronkako bosgarren astean sartu berri gara, aupa zuek, bagoaz elkarrekin aurrera. 🤝

📄 5. asteko entrenamenduaren azalpen bideoa duzue hemen eta triatloiamaitedut.eus webean topatuko duzue taula PDFan.

Animo eta segi gozatzen!!! 🚴🏍️🏊‍♀️

Baser... Ver más



YOUTUBE.COM

5. asteko entrenamendua